AITZINA **Editorea:** Fermin Munarriz. **Koordinatzailea:** Mariasun Monzón. **Abolkularia:** Iñaki Egaña. **Diseñatzailea:** Juan Luis Napal.
Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behea. 31001 Iruñea. **Tlfnoa.** 948-21 99 99. **Faxa:** 948-212329. **E-mail:** aitzina@nafarkobi.net

NORANTZA

IMANOL ESNAOLA
SEI Elkarteko idazkaria

«Soziolinguistika Institutua sortu nahi dugu»

SEI Elkartea Euskal Soziolinguistika Institutua sortzeko urratsak egiten ari da. Goi mailako egitura eta xede zientifiko eta akademikoa izango dituen erakunde honek euskararen normalizazioa lortzea du helmuga.

AMAIA MUNDIÑANO

Zer da soziolinguistika institutu bat?

Soziolinguistika institutua euren hizkuntzaren egoera normaltzen ari diren herri guztiek duten egitura da. Erakunde hau zientifikoa eta akademikoa izan ohi da eta bere lana diziplina ezberdinetan lanean dabiltzanen arteko elkarlana sustatzean oinarritzen da, beti ere hizkuntzaren normalkuntza helburu izanik. Beraz, goi mailako formazioa eta ikerketa bultzatzen dituen erakunde bat litzateke, eta ikuspegi horrek lan horiek aurrera eramaterako garaian goi mailako kualifikazioa izatea ziurtatzen du.

Nondik etorri da Euskal Soziolinguistika Institutua sortzeko ideia?

EKB (Euskal Kulturaren Batzarrea) desagertzean, "Bat" soziolinguistika aldizkaria nolabait umezurtz geldidu zela ikusi genuen, eta berau argitaratzen dugunok aldizkariak bakarrik funtsik ez zuela ere. Euskal soziolinguistikaren inguruan zegoen dinamika kontuan izanik, etorkizunari begira urrats bat egitea beharrezkotzat jo genuen. Euskal ikerlari eta teknikarien formazioan, euskararen normalkuntza prozesuari ikerketen bidezko jarraipena egitean, alor honek biltzen dituen diziplina eta lan ezberdinetan gabiltzanon arteko koordinazioan, informazio trukaketa bultzatzean eta atzerriko esperientzien berri izan eta gurearen berri ematean kokatu dugu urrats hori. Helburu horiek lortzeko, egitura baten beharra zegoela ikusi genuen. Behar horren ondorioz, Euskal Soziolinguistika Institutua sortzea dugu helburu.

Zer-nolako pausoak eman dituzue orain artean?

Aurreko gogoeta egin eta gero, proiektuan interesaturik dagoen jendea asko dela ikusirik, topaketa baten aitzakia behar genuela erabaki genuen, bertan, institutuak nolakoa izan behar lukeen diseinatzeko. Topaketa urtearen amaieran ospatzea espero dugu eta, horretara iristeko, eztabaida prozesu bat martxan jarri nahi dugu, bertan, institutuaren proposamena azaldu eta berresteko asmoz. Bestalde, urtarrilaren amaieran lehenengo batzar nagusia ospatu genuelarik, euskal soziolinguistika institutua sortzeko beharra azpimarratu genuen.

Karlos Corbella

Beharraz jabetu eta gero, zein izan da jendearen harrera?

Euskal Herrian gero eta premiazkoagoa da euskararen normalkuntzaren aldeko erronka guztiei erantzutea. Gainera, gero eta gehiago dira hizkuntzaz arduratzen diren teknikariak, gero eta gehiago dira ikerketan ari direnak. Azken finean, soziolinguistikaren munduan sakabanaketa handia dago eta eurek ere institutua sortzeko beharra azpimarratu dute. Inork ez du kontrako jarrerarik azaldu eta begi onez hartu dute bertan bildutako guztiek.

Institutuaz gain, aurrera begirako beste asmorik ba al duzue?

Gure helburu orokorra euskararen normalkuntza prozesuari ekarpen kualitatibo bat egitea da, hau da, euskalgintzako erakundeei zein enpresa pribatuei, unibertsitateko irakasle eta ikasleei, administrazioko normalizazio teknikariei... beraien lana aurrera eramateko tresnak eta baliabideak eskaintzea da. Zalantzarik gabe, sortu nahi dugun institutuak Euskal Herri mailako egitura izatea dugu helburu, hizkuntzaren normalkuntza Euskal Herriaren normalkuntza prozesutzat hartzen baitugu. Ondorioz, eraikuntza nazionalaren aldeko beste urrats bat litzateke hori. Bestalde, "Bat" aldizkaria kaleratzen jarraituko dugu eta, telamatikak eskaintzen dizkigun baliabideak erabiliz, soziolinguistikako aldizkari elektroniko bat sortu nahi dugu, eztabaida foroekin batera, noski. Azken batean, arlokoentzat erreferentziala izango den gune bat sortu nahi dugu, itxaropen handiz hartzen dugun erronka.

ZIRTOKA

TXILLARDEGI

«Chulos»

Herri bakoitzak badu bere hiztegi berezi-berezia. Espainiak ere bai: «chulo» hitza nagusi. Eta horregatik mordoxka ezagun bat: «chulería», «chulaponería», «chulesco».

Zezenketako «Olé» harroputzak; eta odol-husketan amaitzen den zezen kolpatuarekiko mespretxu harroputzak, «chulería» berberera garamatza, eta guztiz española da. Ohore hitsa! Belgikan «l'espagnol est fier» diote. Harroputz alakoa dela adierazteko modu biguna.

Mayor-Oreja ministroa eta berriki hildako liderra, eredu horretako adibide nabarmenak izan dira. Beren hitzetan: «A hostias y punto».

Beste bide bat saiatzera deliberatuak ginen. Berek, beren harropuzkeria «nazionalean», sakabanaketari eusten diote. Astez aste Donostiako Katedralean burututako gose-opor iraunkorrari ezezko borobila, gartzeletako gose-greba dramatikoari ezikusi harroputza, hamabost hilabetetako suetenari, kasorik ez: «El Estado de Derecho no está en tregua». Abstentzio-kanpañari trabak, deportazioak, entregak: etenik ez. Egurra, egurra eta egurra! Franco, Franco, Franco! Chulos y chulos.

Inposaketarik gabeko soluzio bat proposatu da: Lizarra-Garazi. Automatikoki Madriletik: **ez**. (Eta gure arteko obtuso batzuek ere, gauza bera: **ez**). Zer egingo? Ermu-ko Forokoek amasa hartu baitute.

Hautakizuna lotsagabeki aurkezten zaigu: España (edo Franco-Espainia) onartu, eta geure haragiaren mami egitea. Ala Pirineotako Txetxenia hemen burutzea.

Hordago ikaragarri hori onartu baino lehen, ene uste apalaz, bada zirrikitu bat: Lizarra-Garazi ala hil! Lizarra-Garazi gidari eta epaile goren. Eta erabakitzaile. Eta Lizarra-Garazi horretan, abertzaleok gidari.

Eta hau bideratzeko gauza ez bagara, gureak egin duela somatzea ez zait astakeria iruditzen.

AITZINDARIAK